

SEÑAS DE IDENTIDAD. IZQUIERDA OBRERA Y NACION EN EL PAIS VASCO

Antonio Rivera

Biblioteca Nueva – Instituto de Historia Social Valentín de Foronda, Madrid, 2003

I. Azken urteotan identitatearen gaia, bereziki nazio-identitatearena, modako bihurtu da zientzia sozialetan, eta, beraz, baita historia arloan ere. Izatez nazio gaia, eta gure kasuan euskal nazionalismoaren historia, ez da inondik ere berria. Alderantziz: 1970eko hamardatik jalgi zen euskal historialarien belaunaldi hegemonikoak (Javier Cercuera, Juan Pablo Fusi, Antonio Elorza...) hori izan du bere ikergai kutuna. Orduetik eta gure egunotara euskal nazionalismoaren ikerketak etenik gabe segitu du, baina behinolako ikuspegi estrukturalistei (arloan organizatibo eta sozioekonomikoen azterketei) joera kulturalistak gehitu zaizkie, batzuetan apur bat azaletik, baina nolana ere ikuspegi hura osatuz (fenomenoaren alde identitario, sinbolikoa eta kulturala jorratuz). Azken aldiko moda horrek ekarri du 'identitate' hitza ere. Era horretara, lehendik zetorren euskal nazio-auziarekiko interesa, formaz eraberrituta, berpiztu egin da. Euskal identitate nazionala ez ezik, hein batez hari lotuta dauden beste zenbait identitate ere ikertu dira (nafar identitatea, foru-identitatea, etab.). Eta, nazioartetik datorren moda bat izanik, gaiak, zer esanik ez, Espainian ere oihartzun zabalak izan du, espainiar identitate nazionalaren inguruko hainbat ikerketa ekarriz. Alde horretatik identitate-perspektiba emankorragoa izan da, zeren euskal nazionalismoaren existentzia eta ikertzeko interesa inork kuestionatzen ez zuen bitartean, espainiar na-

zionalismoaren inguruko lanak oraintsu arte ia ikusezinak izan baitira. Azken aldiko produkzioak, beraz, perspektiba konparatuak egitea errazten du, bai eta nazio-identitateak eta jokabide nazionalistak alde desberdinetan ikusten lagundu ere.

Testuinguru horretan kokatzen da aztergai dugun lana. Xehetasunetan sartuz, egileak adierazten digu lan hau EHUko Garaiko Historia sailak eta Zuzenbide Konstituzionalekoak elkarlanean garatzen duten honako proiektuaren baitan egin dela: "Diferencias y diversidad en el País Vasco contemporáneo. Perspectivas sociales, políticas y culturales". Proiektuaren izena gutxienezkoa da, azken finean, honelako makroproiektuak egin beharrak sailei legeak ezarri dien inperatiboan du sorburua, eta ondorioz ahalik eta izenik zabalena bilatzen dituzte, ondoren haren baitan irakasle bakoitzak bere gogoko lanak sartzeko aukera izan dezan. Ezin ukatu, hala ere, sail horretan dabilzan ikertzaileek, kuriosoki euren makroproiektuaren izenean jaso ez badute ere, 'identitate' kontzeptuaren inguruko gaiak lantzean bateratasun minimo bat azaltzen dutela. Horrela, Antonio Riveraren *Señas de identidad* honen alboan, sail bereko Coro Rubio irakaslearen *La identidad vasca en el siglo XIX* aipa daiteke, biak ere Juan Pablo Fusik zuzendutako Colección Historia Biblioteca Nueva-n argitaratuak 2003an. Horrek guztiak argi erakusten digu Fusik eta bere belau-

naldiak hasitako bideak, hausturirik gabe eta garaiak ezarritako moldapenekin, itzal luzea duela eta segitu egiten duela identitatearen inguruko egungo ikerketetan.

Antonio Riverari dagokionez, EHU-ko Garaiko Historia arloko katedraduna, errektoreordea eta errektoregai izateaz gain, historiaren inguruko lan batzuen egile ere bada. Lanik ezagunenak Gasteizi lotutakoak dira, identitate-auziak ukituz batzuetan (*La conciencia histórica de una ciudad: el "vitorianismo"*, Gasteiz, 1991) eta bertako langile-mugimendua aztertuz besteetan (*Situación y comportamiento de la clase obrera en Vitoria (1900-1915)*, EHU, Leioa, 1985). Arabako kasuaz gain, XIX-XX. mendeetako langile-mugimendu orokorra gaitzat hartuta, Mikel Aizpururekin batera egindako eskuliburu bat ere badu, eta, halaber, *Euskal Herriaren historia* (Lur, Bilbo, 1998) izeneko lan kolektiboa zuzendu du (*Uztaro 27*an Iban Zalduak zorrotz iruzkindua).

II. Aztergai dugun liburua ohiko molde akademi-koen baitan kokatzen da, kronologia zehatzeko gai mugatu batekin, eta idazmolde unibertsitarioaren konbentzio formalak betez (saiakera arinen estilotik urrun).

Liburuaren gaia 1880-1923 epean Hego Euskal Herriko langile-mugimendu ezkertiarrek (bereziki PSOEek) nazio-identitateekiko izandako harremana deskribatzea da. Lanaren egituran ildo tematikoa eta kronologikoa konbinatzen dira. Horrela, Joseba Arregik egindako hitzaurrearen ondoren, Riveraren lana hasten da. Aurrenik ikergaia kokatzeko bi atal daude (I-II. kap.): batean gaiaren balantze historiografikoa eskaintzen da, eta bestean, auziaren testuingurua argitzeko, Hego Euskal Herriko industrializazioa eta hari lotutako emigrazioa deskribatzen da.

Ondoren dator lanaren muina (III.-VII. kap.): XIX. mendearen amaieran Bizkaian ia-ia batera agertu ziren sozialismoaren eta euskal nazionalismoaren arteko lehen harremanetatik abiatuz, PSOEek bere orduko internazionalismoagatik bai espainiar zein euskal nazio-identitateekiko izan zuen jarrera kritikoa aztertzen da; ondoren, 1910 ingurutik aurrera PSOEren internazionalismoa espainolismorantz nola lerratu zen deskribatzen da, 1918ko une klabeari azken atala eskainiz. Lanaren muinaren baitan, atal gehigarri gisa, gure ingurueta CNTk nazio-nortasunekiko izandako jarrera aztertzen da (VIII. kap.). Eta hau guztiau bukatzeko ondorioak datoz (XIX. kap.). Azkenik, iturri eta bibliografiaren aurretik, eranskin dokumental bat jasotzen da.

Egitura horretan bertan antzeman daiteke ikerketaren ondorioa. Baina Riveraren lana zehaztasun handiagoz honela laburbil liteke:

XIX. mende bukaeran Bizkaia industrializatu eta langile-populazio bat erakarri zuelarik, PSOE bihurtu zen langileria horren artikulatzailea. Garai berean sortutako euskal abertzaletasunarekiko PSOEek jarrera oso kontrakoa izan zuen, bai sabindar mugimenduak haiekiko zituen ezaugarri antagonikoengatik ('antimaketismoa', klerikalismoa, tradizionalismoa, etab), bai ideal sozialista unibertsalistek tupust egiten zutelako nazio-proiektu ororekin. Zentzu horretan, maiz aipatutako jarrera antiabertzale ukaezinen alloan, Riverak lehen sozialisten espainolismoarekiko kritika paraleloak ere agerian jartzen ditu (1898 moduko une patriotero minberan azaldu zirenak, adibidez). Bestalde, sozialistek euskal nazionalismoari egindako kritikak euskal identitatearen zeinu gehiagotara hedatzen ziren: euskara, foruak, Gernikako arbola, kontzertu ekonomikoak... oso salbuespen

gutxirekin (Iparragirre). Nabarmendu beharra dago, hala ere, sozialisten kezka nagusia klase-azua zela eta, beraz, nazionalismoarekiko aurkakotasun adierazpenetatik harago ez zutela nazio-aferraren inguruan teorizazio sakonik landu.

Bestalde, Riverak agerian jartzen duenez, aberri ororen aurkako jarrera teorikoen azpitik, sozialisten artean espainiar erreferenteak ziren nagusi. Eta ez soilik Ibar Ezkerreko langileen jatorriagatik, asko Euskal Herri bertakoak baitziren sortzez (industrializazioa hastean bizkaitarrek osatu zuten langileen multzo nagusia, ondoren alboko probintziakoak etorri: Burgos, Araba, Santander, Gipuzkoa...). Aitzitik, politikoki ere, beren klase-interesentzat euskal autogobernuaren aukera espainiar agintea baino kaltegarriagoa begitantzen zitzairen: unean bertan sozialisten kontrolpeko udalen autonomia mugatzen zuten euskal Diputazioek; baita, Kontzertu Ekonomikoak tarteko zirela, kontsumoen gaineko zergekin langileak kaltetzen ere; eta, aurrera begira, euskal nazionalista klerikalen eta antiliberalen agintepean geratzeko perspektiba ez zen inondik sozialisten idealetara egokitzen. Horregatik euskal erakunde errealean zein potentzialen aurrean gurago zuten espainiar markopeko eskubideei atxiki. Horrela, 1910 aldera sozialistek klase-politika itxia egiteari utzi eta errepublikarrekiko aliantza bilatu zutenean, erraz igaro ziren sustratu espainiar inplizituko internazionalismotik espainolismo osora. Indalecio Prieto sozialista izan zen aldaketa hori gorpuztu zuen liderra.

Nolanahi ere, teoria mailan PSOEk internazionalismoa mantentzen zuen. 1918ko abagunean (Mundu Gerraren bukaerak Europako hainbat herriren independentzia ekarri zuenean), nazio-aziarekiko ordura arteko ukazio-ja-

rrera gainditu eta Espainia nazioanitzat zela onartzeko prest egon zen Espainiako PSOE, baita Estatu-eredu gisa espainiar edo iberiar konfederazioa proposatu ere. Baina hori dena teoria mailan geratzen zen. Praktikan, bai erreferente kulturalengatik, eta bai intereselektoralengatik, bizkaitar sozialistek euskal nazionalismoaren aurkako jarrera militantea eta espainolismoa ageri zuten. Izan ere, Bizkaian hiru bloke nagusi egonik —euskal nazionalista eskuindarrak, espainiar monarkiko eskuindarrak eta espainiar errepublikar-sozialistak— Prietori ez zitzaion komeni bi bloke eskuindarren arteko aliantza (haien taldea gutxiengoan utziko baitzuen), eta, beraz, espainiar identitatea indartzea zen aliantzak aldatzeko bidea, horrela, jeltzaleak baztertzuz eta sozialistak monarkikoekin gehiengo osatuz. Hori izan zen Prietok 1918-1923 urteen artean gidatu zuen politika, jeltzaleak Bizkaiko Diputaziotik kanporatuz, eta Gorteetako hauteskundeetarako diputatuak monarkiko eta sozialisten artean banatuz, elkarrekin lehiatu gabe.

Eibarko sozialisten kasuak, eredu orokor horri ñabardura batzuk ezarri zizkion: bertako langileak oso nagusi euskaldunak izanik, sentiberatasun handixeagoa zuten euskal identitate zeinuekiko (euskara, diputazioak, foruak...) eta autogobernu-aukeren aurrean irekiagoak ziren. Pi i Margall ildoko federalismoarekiko ere atxikimendu handiagoa zuten. Nolanahi ere, doktrinalki eta praktika politikoa bat zetozen Bizkaiko PSOEn ildo nagusiekin: internazionalismo teorikoa, nazio orekiko kontraktotasuna, eta konkretuki, euskal nazionalismo klerikalaren erreibindikazioen aurrean, Espainiako markoak bermatutako banakoen esku-bideen eta udal-autonomiaren defentsa. Halaber, bizkaitar sozialistek bezala,

gipuzkoarrek ere ez zuten kuestionatzen espainiar kulturaren nagusigoa ('garatuagoa', 'modernoagoa', 'progresorako egokiagoa'), nahiz gero euskara sarritan zerabilten (mitinetan, euren publikazioetan zertxobait, etab.). Euskal sentiberatasun handixeago horrek erraztu zuen, Eibarko sozialisten artean, bereziki han zebiltzan Medina-beitia eta Toribio Etxebarriaren eskutik, 1918ko abagunean nazionalitateen inguruko teorizazio sakonago bat ehuntzea. Berez ez ziren PSOEn linea ofizialek irten. Aitzitik euren alderdiak espainiar edo iberiar konfederazioaz 1918an egindako proposamenaren baitan euskal nazioa kokatzeko aukerak aztertzeraz mugatu ziren. Baina bizkaitar sozialistek ez bezala, proposamen hura seriozki hartu eta jorratu zuten, horretan berritasuna izanik. Garapen teoriko horrek, ordea, ez zuen ondorio praktikorik izan. Prietok, gainera, esplizituki gaitzetsi zuen eibartarren *tanteo* hura, eta haiek ez zuten beste ahaleginik egin. Kontrara, gogoe-ta teoriko bakanetatik harago, eibartarrek Bizkaiko sozialisten hautes-taktika antiabertzaleekin bat egin zuten guztiz.

Azkenik CNT del Norte-ren kasua Hego Euskal Herriko PSOEn antzekoa litzateke nazio-aferran: klase-auziari ematen zioten garrantziagatik doktrinalki internazionalistak eta antinazionalistak ziren, nahiz *de facto* espainiar kultur erreferentziak agertzen zituzten. Honaino Riveraren lanaren laburpena.

III. Lana iruzkintzen hasita, oro har, nahiko lan orekatua dela esan beharra dago. Alderik positiboena gertaerak bere garaiko testuinguruan kokatzeko ahalegina da, egungo debateak orduko auzietara proiektatzea saihestuz (zentzu horretan lekuz kanpo geratzen da Joseba Arregiren hitzaurre polemikoa, liburuaren muinarekin zerikusirik gabeko egungo kezka betea). Rive-

rak, gainera, azalpen sinplisten eta zentzubakarrekoen lekuan, sozialistek nazio-auziarekiko zuten jarrera esplikatzeko dauden arrazoi ugariak bereizten eta hierarkizatzen ditu. Horrela, lehen faktorea ideologia internazionalista litzateke, munduko langileriaren batasuna nazio-zatiketen gainetik jartzeko zuena, eta nazio-auziarekiko urruntasuna eragiten zuena, aurkakotasuna ez zenean. Riverak ohartarazten duen bezala, sozialisten antinazionalismoaren egiazkotasuna, EAJrekiko kritikan baino hobeto, 1898 moduko une hiperespainolistan baieztatzen da, gatazka hura salatzean. Gerora antinazionalismo orokor hori euskal esparruan zentratzearen zergatiak hainbat arrazoi osagarri ematen ditu Riverak: jeltzaleekiko esparru komunikatzaile (eskuin vs ezker, klerikal vs antiklerikal, xenofobo vs internazionalista...); sozialisten internazionalismo teorikoaren azpitik espainiar erreferente kulturalak izatea; espainiar estatuaren bermeen aurrean euskal autogobernuak eragiten zuten kalte eta mesfidantza; hautes-interesek eragindako aliantza espainolistak, etab. Halaber, egoki azalduta dago Eibarko kasua, Bizkaiko ereditutik zertxobait desberdina zena, baina ez hainbeste.

Horretan guztian Riveraren ekarpen nagusia orain arte aski ahantziak izan diren faktore estrukturalen garrantziak ohar egitea da (euskal Diputazioen ereduak eragiten zuten kaltea etab.). Halaber aipatzekoa da maila dokumentalean egin duen ekarpena, orain arte gutxi aztertu diren hainbat iturri eta datu berri ezagutaraziz. Adibidez, deigarriak egin zaizkit Eibarko sozialista euskaldunek euskararen kultur gaitasunik ezaz idatzitako hainbat testu (Torrealdaren liburu beltzean sartzeko modukoak; cf. Rivera, 2003: 71, 133, 157). Nolanahi ere, zerbait gehiago

esan zezakeen hor-hemenka aipatzen baina lantzen ez duen *Eibar'ko berbeta internacionala*-ren kontuaz (adibidez, nola uztartzen zen eibartarren euskararekiko konplexua eta aldi berean 'berbeta internacionala' kontsideratzearen harrotasuna?).

Aurrenik baina, liburuaren mugak aipatzen hasita, edukian gehiago sartu aurretik, formazko ahulezia batzuk seinlatu beharko lirateke. Esate baterako, Riveraren liburuko bigarren kapituluak, Hego Euskal Herriko industrializazioaren ingurukoak, ez dio ekarpenik egiten lanaren funtsari. Kapitulu osagarri bat da, duda gabe komenigarria testuingurua azaltzeko, baina luzeegia nire iritziz (eta kuriosoki, luzea izan arren, aipatu gabe uzten dituen industrializazio eta demografiaren gaia landu duten hainbat egile, hala nola Pilar Pérez Fuentes edo María Eugenia González Ugarte; baita, azken hori bezala, historia ekonomikoa sailekoak diren gainerako ikertzaileak ere: Antonio Escudero, Jesús María Valdaliso, Emiliano Fernández de Pinedo...). Gainera Bizkaiko eta Gipuzkoako industrializazioaz gain Arabako eta Nafarroako prozesu berantagoa azaltzea, Riverak egiten duen bezala, politikoki oso zuzena izan daiteke, baina ikergaiaren kronologiatik kanpo geratzen da. Izatez Araba eta Nafarroa ia aipatu ere ez dira egiten lanaren muinean. Beraz atal hau laburrago kontatu zitekeen.

Liburuko azken kapituluak ere forma aldetik kritikagarria iruditzen zait. *Conclusión* izenburua izan arren, ez da ondorio bat, baizik lanaren laburpena, ikerketaren eskema kronologikoa aldatuta gabe errepikatzen duena. Gainera laburpena izateko aski luzea da: 22 orrialde. Ganorazko ondorio batek, nire iritziz, lanaren muina osatu beharko luke, erredundante izan gabe.

Terminologia aldetik ere ageri da inkoherentziarik. Horrela, EAJkoak izendatzeko garaian arrunki (eta arrunke-riaz) erabiltzen zen *los bizkaitarras* Riverak berak normaltasun osoz dabil (egokiago den *los nacionalistas vascos*-ekin tartekatuz). Aldiz PSOE adierazteko, ez da garaiko terminoek baliatzen baizik *el socialismo vasco* gisa izendatzen du, orduko testuetan sekula azaltzen ez zena. Urte haietako idazkietan inoiz *los socialistas vascos* aurki daiteke, baina soilik euskara zekiten eibartar sozialistei eta halakoei aplikatuta, hots indibiduo euskaldunei, sekula ez Hego Euskal Herrian kokatutako sozialismoari mugimendu gisa, horrek bere burua aniztaltzat baitzuen. Riveraren *los anarquistas vascos* izendapenarekin gauza bera gertatzen da, libertarioek beraiek euskal identitate hori gaitzesten baitzuten: «Ni somos católicos, ni vascos, ni comunistas, ni socialistas» (in Rivera, 2003: 196). Izatez Riverak, terminologiako ondorioz atera gabe, ohar hau egiten du (2003: 196): «Todavía hasta la Segunda República, el apelativo vasco aplicado a una organización obrera o a unos trabajadores remitía a una identificación política, partidaria [euskal nazionalista], no a una identidad compartida». Beraz zehatzagoa, deskriptiboagoa eta neutralagoa izan zitekeen *el anarquismo vasco* edo *los socialistas vascos* barik, *Hego Euskal Herriko* (edo *Bizkai-Gipuzkoako*) *sozialismoa*, *anarkismoa*, edo halako izendapenak erabiltzea.

Formazko ahulezia hauetatik lanaren muinera igaroz, liburuan jorratzen den sozialismo/identitate inguruko historiografiaz zerbait esan dezagun. Hasteko, laudatu beharrekoa da, unibertsitate-giroan maiz azaltzen diren aurreiritziak gaindituz, Riverak egiten duen ahalegina historialari ez-profes-

sionalen ekarpenak haintzat hartzeko (kritikoki, logikoa den bezala), adibidez, 'Beltza' moduko heterodoxo bat historiografia akademikorako berreskuratuz. Lastima berreskurapen hori euskarazko historiografiaraino ez iristea. Horrela, Riverak aipatu gabe uzten du, besteak beste, gai honi bete-betean dagokion liburu bat: Joxe Azurmendiren *PSOE eta euskal abertzaletasuna (1894-1934)* (Hordago, Donostia, 1979). Azurmendik, filosofoa izanik, ez zuen xehetasunez aztertu historialariok begiratu ohi dugun gertaeren bilakaera kronologikoa, baina ideien historiari dagokionez analisi jakingarriak eskaini zituen. Riverak dokumentazio dextente gehiago arakatu du, eta ondoren zehatzago zedarritzen eta argitzen ditu internazionalismo-espainolismo adierazpenen epealdiak eta uneko koiunturerekin zituzten loturak (zein gertaeraren testuinguruan egin ziren, uneko zein taktikak baldintzatzen zituen...). Baina Azurmendiren analisi globalak PSOEren ideologiaz gako interesgarriak eskaintzen ditu. Hortaz, Azurmendiren saiakera, idatzi zen uneko joera militantek zertxobait zamatuta egon arren (Trantsizioko PSEri gordinki agertu nahi baitziren alderdiaren iragan espainolista, aurrerantzean joera zuzenduko zuen itxaropenaz), egun ere, garaiko polemika asmoak albo batera utziz, Antonio Riverarentzat lagungarria izango zen, jada esanda dauden gauzak berresan beharrik ez edukitzeko, eta zuzenean haien gainean lan egin ahal izateko.

Esate baterako, Riverak sozialistek Espainiako errealtateaz egindako kritikei antzeman dien filiazio erregenerazionista eta «noventayochista» (Espainiarekiko kritiken atzean beste espainiar nazionalismo-mota bat gauzatzen ari zirela) jada seinalatua zuen Joxe Azurmendik (1979: 93-98). Beste ho-

rrenbeste gertatzen da Riverak sozialisten kritika nazionalean dakusan antzutasunaz (alternatibarik edo soluziorik eskaini ordez, arazoa ukatzera mugatzen zirela), jada Azurmendik azaldua (1979: 139-145). Edo Eibarko sozialista euskaldunak euskaldun soil, natural zirela, euskalduntasun kontzientzi politiko gabeak (Rivera, 2003: 68, 200 eta Azurmendi 1979: 104). PSOEren jarrera antiabertzalea azaltzeko arrazoien artean Unamunoren eta Meabereren garrantzia ere biek aipatzen dute. Baina Joxe Azurmendik bi pertsonaia horien motibazio antiabertzalearen arrazoi psiko-sozialez ere egin zuen ohar aipagarrik:

«Espainolismo sozialista Bizkaian teorizatu eta politikoki harmatu dutenak, bilbotar bi dira: eta, presezkiago, abertzaletasun aranista teorizatu duen erdi klase ikaratu nahastu hartakoxe bi seme [Unamuno eta Meabe], Sabin bezalaxe hain zuzen. Gogora dezagun, iraultza industrialak Bilboko erdi klasea zeharo nahastu eta desmoralizatu zuela. Erreakzioz [euskal] abertzaletasun arrazistara eta sozial-inperialismo espainolistarara joko da». (Azurmendi, 1979: 56).

EAJ eta PSOE arteko borroka ideologikoaren atzean botere-lehia ere bazezuela, eta jeltzaleen kontrolpeko autogobernuaren beldurra, Riverak bezala Azurmendik ere aipatua zuen. Izatez, Azurmendi Rivera baino urrugo zihoan botere-lehiaren ildo horretan, eta sozialistek maiz aipatu zuten argudioa kuestionatu egiten zuen, alegia independentista edo antiespagnolista izateagatik baino gehiago atzerakoia zelako gaitzesten zutela euskal nazionalismoaren proiektua (aldiz Riverak argudio horri sinesgarritasuna ematen dio arrazoi osagarri gisa, 2003: 208). Azurmendiren arabera (1979:

119-126) PSOEk bere kontrolpetik kanpo egoteagatik zien beldur handiagoa autogobernu proiektuei haiek antiliberalak izateko arriskuagatik baino, eta II. Errepublikako gertaera argigarriak aipatzen ditu frogatzat: hasteko, PSOEk urtetan autonomia partikularisten aurka federalismoaren erretorika erabili ostean, 1931ko abagunea iritsi zenean, sozialistak botere zentralera heldu ziren, eta orduan errepublika (eta botere) eredu federalaren guttiz aurka egin zuten. Gero autonomia konkretuak onartu behar izan zirenean, Katalunian gehiengo ezkerak izan arren, gehiengo hori ERCkoa baitzen eta ez PSOEkoa, sozialistek apenas jarri zioten traba gutxiago katalan estatutuari Euskal Herrikoari baino; eta azkenean, euskal estatutua Prietoren gustura moldatu zelarik osagai klerikalak eta tradizionalistak kenduz, orduan ere ez ziren sozialistak autonomia horren defentsan bat ere nabarmendu, liberala izan bai baina jeltzaleen eskuetan geratuko zela zekusatelako.

Bestalde, Riverak aipatu aipatzen du PSOEk sozialisten ideologiaren pobrezia (2003: 73), baina Azurmendik ondorio sakonagoak atera zituen (1979: 102-108), sozialistak politizatu ta ez zeudela ebatzeraino. Izan ere, soilik eguneroko problemei, erreibindikazio praktikoei, berehalakoei begiratzen ei zieten; eta maila teorikoan ideal unibertsalak, mundu berria, optimismo ingenuoa baizik ez zuten. Halako aurrerabidearen ideia *naif* eta utopikoan geratzen ziren (are kristaua: Meabe), dena sozialismoak konponduko zuelakoan. Ikuspegi horretan foru, euskara, nazionalitate eta halakoei ezin garrantzirik eman, ezin horretaz kezkatu. Eta horren haritik Azurmendik marxisten epaia dakar gogora: «Bere garaian Marxek abisatu zuen [izatez Engels izan zen abisu hau egin zuena,

Naturaren dialektika-n, baina aipuak berdin balio du], filosofiarik okerrenea filosofiarene mespretxua dela; orduan, nahitaez filosofiarene bat praktikatzen baita: eta, ziur, txarra eta txarrena huxaxe». Eta hola, PSOEk, inkontzienteki, Espainiako tradizio politikoak segitu zituen. Riverak berak ematen ditu horren hainbat adibide, ez soilik PSOEn kasuan baizik are CNTreanean, anarkistak eskola-liburuen ildoko espainolismoa islatzeraino iristen baitziren (2003: 189-190). Zentzu horretan Rivera orekatua izan da, eta identitate nazionalak euskal aldean ez ezik, bestean ere seinlatu ditu, are langileklaseak —agian inkontzienteki baina objektiboki— espainolizazioaren faktore gisa eragin zuela adierazteraino (2003: 85). Datu horiek guztiak historialariontzat interesgarriak dira, maiz kuestionatu izan den espainiar nazionalizazio-prozesuaren indarra irudiz ez baitzen hain ahula, are aberri orenen kontra deklaritzen zirenek (espazituki espainolismoa gaitzesteraino) inplizituki espainolismoa islatzen eta erreproduzitzen bazuten.

Ildo berean sakonduz, Joxe Azurmendik (1979: 80-91), partikularismoari kontrajartzen zitzaion unibertsalismo sozialistak Espainiako kultura politikoan zituen erro sakonak agerian jartzeko saiakera bat eskaintzen zuen. Izan ere, berezitasunen aurkako jarra 'unibertsalista', Antzinako Erregimeneko hispaniar inperialismo katolikoan abiatu zen, ondoren espainiar liberalismo unitaristan segitu, eta PSOEk, jakin gabe, tradizio politiko horixe heredatu zuen. Horrela esplikatzen zuen Azurmendik PSOEk euskal nazionalistei kontrajartzen zizkien hainbat ideia ia hitzez hitz errepikatu ahal izatea geroagoko falangistek ere (abertzale txokozale eta sentimental en regionalismo arlotearekiko arbuioa,

euskara baztertzeko eskariak, kultura jasoa Gaztelatik zetorrela, Espainia erredimitu beharra, lokalismoaren aurrean zibilizazioaren helburu unibertsala kontrajartzea, etab.). Ideia 'unibertsalista-progresista' hauek, espainiar tradizio politikoeekin ez ezik, XIX. mendeko europar ideologia inperialistekin zuten harremanaz ohar osagarriak aurki daitezke azken aldiko bibliografian ere: zehazki —sozialistengan hainbeste eragin zuen— Unamuno euskal identitatearekiko harremanean aztertzen duten zenbait ikerketatan (cf. Joseba Zulaika, *Del Cromañón al carnaval*, Erein, Donostia, 1996, konkretuki 67-76. or.; eta Xabier Erize, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1997, bereziki 398-408. or. [gaztelaniazko itzulpena ere eskuragai du Riverak: *Vascohablantes y castellano hablantes en la historia del euskera de Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999, 221-233. or.]).

Arlo horretan, bada, Riveraren lanak hutsuneak ditu. Izan ere, Riverak EAJ-ren ideologia 'atzerakoi', 'antiliberal', 'esentzialista', 'xenofobo', 'irrazional' eta ondorioz «exclusivista y excluyente» gisa aipatzen badu ere hainbat lekutan (2003: 19, 49-52, 198-199, 208, 217), ez du horren parez pare sozialisten unibertsalismo eta progreso-ideien inplikazio inperialista eta zapaltzaileaz ezer esaten. Horrela, azalpenik gabe geratzen dira liburuko aipuetan hantemenka ageri diren turko, marokiar, afrikar eta gainerako herri 'margina-tuekiko' sozialisten mespretxuzko topikoak (2003: 70, 81, 82, 160). Halaber, logika unibertsalista-inperialista beretik deribatzen den euskararekiko perspektiba genozida ere (hitzez hitz: «Quisieramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales [...] que no permitiera la literatura regionalista y que

acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional» in *La Lucha de clases*, 1899.10.07), ohartxo soil batean geratzen da, eta Riverari honako interpretazioa baino ez dio merezi: «los Juegos Florales no eran [para los socialistas] más que 'pirotegna oral' (sic), motivo de enfrentamiento que se prefería prohibida por el Gobierno». Eta ondorioetan: «las Fiestas Eúskaras y los Juegos Florales [les parecían] unas demostraciones de localismo, despreciativas de la cultura de otras regiones, y el vascuence, una lengua nada moderna, inadaptada para el tiempo presente, remitida en todo caso al uso doméstico y denunciada progresivamente como instrumento de diferenciación y exclusión en manos de la facción más dura y radicalizada de aquellas clases dirigentes, los bizkaitarras, que condenaban a los trabajadores a un lugar de subordinación» (cf. Rivera, 2003: 96, 203). Hitzik ere ez euskara suntsitzeko sozialisten perspektibaz. Hortik aski pertinentea iruditzen zaidala Joxe Aurmendik zioena sozialistez (1979: 109), hau da, «abertzaleak aina meritu egin dituzte[la], integrazioa eragozteko lanean, euskaldunak arbiatuaz».

Beraz, Riverak nahiko ondo antze-man baditu sozialisten eta nazionalisten arteko urruntasunaren gako estruktural eta kulturalak, aldiz, bien artean gerturaterik jazo ez izanaren arrazoiak seinatzeko orduan ondorio partzialak ateratzen ditu: «el nacionalismo aramista no dio opciones, y a la altura de 1918 no había evolucionado lo más mínimo» eta «el nacionalismo vasco impedía en sus formulaciones y actuaciones cualquier acercamiento» (Rivera, 2003: 212-213, 217). Hori frogatzeko nazionalisten ezkereranzko saioek buru jeltzaleen artean (v. g. *Kizkitza*) jasotako gaitzespenak aipatzen ditu.

Nolanahi ere, aski nabarmendu gabe uzten du mundu nazionalistatik saioak behintzat egin egin zirela (are ezkerreko alderdi nazionalista txiki bat sortzeraino 1911n), sozialisten munduan gertatu ez zena (Madinabeitia edo Etxebarriaren proposamenak ez baitziren disidentzia izatera ere iritsi). Gainera, badira Riverak aipatu kasuez gain gehiago: Eleizalde, adibidez (eta buruzagi jeltzale ortodoxo honen hitza *Kizkitzarena* bezain garrantzitsua zen, gehiago ez bazen), jada 1913an aipatu zuen berak ezkerreko alderdi nazionalista baten sorrera ontzat emango zuela (cf. M. Aizpuru, *El PNV en Guipúzcoa (1893-1923)*, EHU, 2000: 212. or.); halaber, Riverak gogora dakartzan Ulacia, Landeta, Belaustegigoitia edo Guiard moduko nazionalista liberalez gain, Jesus Sarria *Hermes* aldizkariaren zuzendaria, Isusi eta are beren burua propioki sozialista deklaratzeko zuten nazionalistak ere baziren, adibidez, Santiago Meabe, Tomas-en anaia aberrianoa. Sozialistotik abiatuz nazionalismora hainbeste gerturatu ziren halako kasu-multzorik ez dut ezagutzen.

Edozein kasutan, Fusirekin bat egin ez dio Riverak une batean (2003: 73, 1. ohar.), auzi soziala eta nazionala uztartzeko kezka egungoa dela, eta anakronikoa dela garaikoengan halako kezka bilatzea. Bada, kuriooa da, nork eta Sabino Arana antimaketo eta antisozialistak berak aipatu zela PSOEkoiei jada 1898an austrohungariar sozialisten eredu autonomista. Bizkaiko sozialistek erantzun ere egin zioten Aranari, bai Fusiri eta bai Riverari antza oharkabea igaro zaien testu batean, Joxe Azurmendiren iruzkinean aipatzen dena (1979: 53-54):

Erantzunean zioten sozialistek «Espainia ez dagoela Austriarekin alde-
ratzerik, Espainia 'nazio homogeenoa'

delako, arraza eta hizkuntza diferente gabe; hemen ez delako batasuna konkista edo anexioz egin [...], eta Euskadi betidanik espainola izan delako; gainera, probintziok ez dira inoiz besteak baino okerrago tratatu izan, aitzitik, besteei ez bezalako Foruak eta pribilegioak eman zaizkie [...] (*L[ucha de]Clases*, 1898ko irailak 16). Beraz —dio Azurmendik— ezagutu egiten zizuten, [Bizkaiko PSOEkoek] Austriako sozialisten teoriak. Haien jokabidea ontzat eman ere egiten dute, Austriar: Austriar bai, arraza eta hizkuntza diferenteak bait daude Inperio batean nahasturik. Espainian ez. Han zapalduak daude herri batzuk. Hemen ez. Haien tesi autonomistak ez dute hemen balio».

Hortaz, gerturatzeko ahalegin (urri)ak aztertuz, ez du ematen —Riverak hala esan arren— hutsunea nagusiki nazionalistei zegokienik. Riverak beste nonbait eransten du sozialisten artean hurbilketa-bidea errazteko bitartekorik ez zela egon, ahaztuz liburuko hainbat tokitan aipatua duela bai Unamunok 1904ko artikulua batean, zein Gaskue gipuzkoar errepublikarrak maila politiko praktikoagoan, euskal autonomismo-rako bidea seinatu zitelako PSOEkoiei (Prietok gaitzetsi zituen Madinabeitia eta Etxebarria ahaztu gabe). Batzuetan Rivera irakurri badirudi PSOE determinismo fatal baten pean zegoela, mekanikoki ezinezko egiten ziona euskal nazionalismoarentzat gerturatzeko: hasieran nazionalismoarekiko ezaugarri antagonikoak ziren (batez ere jeltzaleen esentzialismo atzerakoia), eta gero, Prieto agertzean, hauteskundeen dinamika eta ordezkari bat izateko beharrikeria ez zieten sozialistei beste aukerarik eman monarkikoekin aliatzea baino. Riverak ez du aipatzen alternatiba posiblerik, eta, historia nola joan zen ikusiz, egon bazirela pentsa

daiteke: adibidez, Gerra Zibilean EAJ PSOErekin aliatzea posible izan zen; eta, deigarriagoa dena, lehenago ere, 1920ko hamarkadan, Prieto monarkikoekin zebilelarik, jeltzaleak komunistekin diskretuki tratutan ibiltzeraino iritsi ziren (anarkistei beraiei *Euzkadi* egunkaritik egindako keinuak ahaztu gabe, cf. Rivera, 2002: 176, 192); hortaz, ez dirudi komunistak edo anarkistak baino moderatuago ziren sozialistekin adostasuna bilatzea ezinezkoa izango zenik. Kontua da baina sozialistek Prietoren eskutik (eta lider bera izanik beste biderik hautatzea zaila zen) monarkikoekin aliatzea aukeratu zutela. Alderdi eta hauteskunde-interesak ikusiz logika duen aukera da, baina ez inondik ere aukera posible bakarra. Riverak berak aipatzen du (2002: 128-129) nola, lehenago ere, 1913ko hauteskunde batzuetan, Balmasedako barrutian posible izan zen errepublikar-sozialisten eta jeltzaleen arteko hautes-akordio bat, baina Prietok zapuztu egin zuela (izatez 1918an bertan Arakistain sozialistak antzeko aukera aipatu zuenean gauza bera gertatu zen). Hortaz, 1918tik monarkikoekin egindako aliantza, ez litzateke ulertu behar sozialisten hautes-interesen erremediorik gabeko ondorio gisa, baizik eta soluzio posibleen artean haiek egin zuten aukera gisa. Eta pen-

tsa daiteke ordezkaritza lortzeko premiak adina edo gehiago, beste faktore batzuek eragin zutela aliantza horretan, hala nola gorago ikusi dugun kultura politiko espainolista eta antiabertzaleak.

Eta buka dezadan ohar batekin. Riverak landutako zenbait auziri lerro hauetan kontrapuntua eman badiet ere, horrek ez du esan nahi liburuko iritziak osotara hemen emandakoen aurkakoak direnik. Aitzitik hemen aipatu ditudan zenbait perspektiba Riverak ere inoiz planteatzen ditu. Kontua da, auzi horiek ukitzean ene gusturako aski landu gabe uzten dituela edota enfasia beste ikuspegiren bati ematen diola. Horregatik, emaitza orekatzeko, bere ikuspegiekin nituen diferentziak iruzkinean markatuta atera zaizkit, aldea, izatez, aurkakotasunezkoa baino matizaziozkoa bada ere maizenik. Horrela, bada, eta iruzkin honetan agertu nahi izan ditudan ñabardurak gora-behera, ondorio da, nire iritziz, Riverak egoki heldu diola gaiari bere liburuan; eta liburua, izugarri distiratsua izan gabe ere, ekarpen garrantzitsua dela Hego Euskal Herriko ezker langileak nazio-auzian izan zuen jarrera ezagutzeko.

Jurgi Kintana Goirienea